

## BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

### 1810

*AGINDUA, 2015eko apirilaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, hezkuntza-ituna indarrean duten ikastetxeetan 2015-2016 ikasturterako itundu beharreko gela-kopurua zehazteko inprimaki-eskabideak, eta eskabideak aurkezteko egutegia onartzeko eta jakinarazteko dena.*

Irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren bidez, hezkuntza-itunen erregelamendua onartu zen. Haren II. eta VI. kapituluetan ezarrita dago hezkuntza-itunak sinatu eta berritzeko prozedura.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko maiatzaren 16ko Aginduaren bidez, 2012-2013, 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako hezkuntza-itunak sinatzeko eta berritzeko baldintzak arautzen dira (2014ko maiatzaren 21eko Aginduaren bidez aldatu zen agindu hori). Agindu horren 11. artikuluan ezartzen denez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian urtero argitaratuko da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren agindu bat, zeinetan egutegiak eta eskabide-orriak zehaztuko diren.

Oinarrizko Lanbide Heziketari dagokionez, ez da deialdi honetan arautuko; izan ere, Oinarrizko Lanbide Heziketa antolatzeke eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko Dekretua izapidetzen ari dira. Dekretu horren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketako irakaskuntzen alderdi espezifikoak antolatzea.

Hori dela eta, Oinarrizko Lanbide Heziketaren ituna sinatzeko deialdia eta itunduko diren unitateen zehaztapena ez da deialdi honetan egingo, irakaskuntza horiek arautzen dituen dekretu hori onartu ondoren baizik.

Hori dela eta, 2015-2016 ikasturterako itundu beharreko gelak zehaztu behar direnez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Onartzea eta jakinaraztea hezkuntza-ituna indarrean duten ikastetxeetan 2015-2016 ikasturterako itundu beharreko gela-kopurua zehazteko inprimaki-eskabideak.

##### 2. artikulua.– Eskabideak.

###### 1.– Eskabideak aurkezteko egutegia onartu eta jakinaraztea:

Hilabetekoa izango da Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Hezkuntza Bereziko irakaskuntzak 2015-2016 ikasturtean ituntzeko eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunik aurrera.

2015eko uztailaren 6an amaituko da Batxilergoko, Erdi Mailako Heziketa Zikloetako, Goi Mailako Heziketa Zikloetako eta Hezkuntza Berezia 2 LH-ko irakaskuntzen 2015-2016 ikasturtea ituntzeko eskabideak aurkezteko epea.

## 2. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

Eskabideak elektronikoki aurkeztuko dira Hezkuntza Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko hezkuntza-itunen aplikazio informatikoaren bidez.

Eskabideak aurkezteko argibideak eta deialdi honi buruzko gainontzeko izapideei buruzko argibideak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa daude eskuragarri: [https://euskadi.eus/agrupacion\\_servicios/2015/itunak/y22-izapide/es](https://euskadi.eus/agrupacion_servicios/2015/itunak/y22-izapide/es)

Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa aurkezteko ezintasun tekniko edo materialik balego, ikastetxeek aurrez aurre aurkeztu ahal izango dute eskabidea. Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- I. eranskina: 2015-2016 ikasturtean ituntzeko unitate-kopurua zehazteko eskabide-inprimakia.
- II. eranskina: 2015-2016 ikasturtean ituntzeko unitate-kopurua zehazteko inprimakiak.

## 3. artikulua.– Eskabideetako akatsak zuzentzea eta alegazioak.

Aurkeztu den eskabidea osorik ez balego edo zuzentzeko moduko akatsik balego, hamar egun balioduneko epea emango zaio ikastetxe interesdunari akatsa zuzen dezan eskabidea aurkeztean aukeratutako bidetik; halaber ohartarazten zaio, hala egin ezean, eta 30/1992 Legearen 71. artikuluan ezarritakoaren arabera ebazpena eman ondoren, bere eskaeran atzera egin duela joko dela (azaroaren 26koa 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Era berean, behin-behineko proposamena jaso ondoren, ikastetxeek, jakinarazten den egunetik hasita hamar egun naturaleko epean, egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzakete.

## 3. artikulua.– Deialdiaren ebazpena.

2012ko maiatzaren 16ko Aginduan ezarritako Batzordeek eskabideak aztertuta eta proposamenak eginda, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren aginduaren bidez ebatziko da deialdia, sei hilabeteko epean, agindu hau indarrean sartzetik hasita, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du jakinarazpen indarra) eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan (<https://euskadi.eus>) argitaratuko da.

Matrikula egiteko ohiko epea eskabideak egiteko epea baino geroago bukatzen bada, matrikula egiteko ohiko epearen barruan matrikulatutako ikasleak hartuko dira kontuan deialdiaren ebazpenean.

## AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak.

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak direla-eta Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, ez dira itunduko 2015-2016 ikasturterako, eta irakaskuntza hori Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloek ordeztuko dute.

## AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honetan aurreikusi gabekoetan, arau hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko maiatzaren 16ko Agindua, 2012-2013, 2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako hezkuntza-itunak sinatzeko eta berritzeko baldintzak arautzekoa (agindu hori 2014ko maiatzaren 21eko Aginduaren bidez aldatu zen); Hezkuntza-itunen Araubidea onartzen duen irailaren 8ko 293/1987 Dekretua; eta 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.

2015eko apirilaren 22a, asteazkena

## AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Indarrean sartzea.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko apirilaren 22a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2015eko apirilaren 22a, asteazkena

## I. ERANSKINA

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak, \_\_\_\_\_ udalerriko \_\_\_\_\_ ikastetxe pribatuko titularra/ordezkarria izanik, 2015eko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_ko Aginduari jarraiki, zeinen bidez onetsi eta argitara ematen baitira 2015-2016 ikasturterako ituntzeko gela-kopurua zehazteko eskatzeko inprimakiak, honako hau

## ESKATZEN DU:

– 2015-2016 ikasturterako hezkuntza-itunak, honekin batera doazen II. eranskinen arabera.

\_\_\_\_\_, 2015EKO \_\_\_\_\_AREN \_\_\_\_A.

TITULARRA/ORDEZKARIA

2015eko apirilaren 22a, asteazkena

## II. ERANSKINA ITUNTZEKO GELAK

Ikasturtea: 2015-2016.

Irakaskuntzak: Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza, DBH, Hezkuntza Berezia 1

Kod.: \_\_\_\_\_ Ikastetxea: \_\_\_\_\_ Udalerria: \_\_\_\_\_

MAILA		A		B		D	
		Ikasleak	Gelak	Ikasleak	Gelak	Ikasleak	Gelak
HAUR HEZKUNTZA (2ºZIKLOA)	3 urte						
	4 urte						
	5 urte						
	GUZTIRA						
LEHEN HEZKUNTZA	1.						
	2.						
	3.						
	4.						
	5.						
	6.						
	GUZTIRA						
DBH	1.						
	2.						
	3.						
	4.						
	GUZTIRA						
HB	HB1H						
	HB1B						

\_\_\_\_\_, 2015eko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_ a  
TITULARRA/ORDEZKARIA

2015eko apirilaren 22a, asteazkena

**II. ERANSKINA  
ITUNTZEKO GELAK****Ikasturtea:** 2015-2016.**Irakaskuntzak:** Hezkuntza Berezia 2 (itxia)**Kod.:** \_\_\_\_\_ **Ikastetxea:** \_\_\_\_\_ **Udalerrria:** \_\_\_\_\_

<b>HB 2</b>	<b>Ikasleak</b>	<b>Gelak</b>
Garapeneko nahaste orokorrak		
Buru-urrituak		
Mugimendu-urritasun larriak, urritasun elkartuak dituztela		
Zentzumen-urrituak		

\_\_\_\_\_, 2015eko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_a  
TITULARRA/ORDEZKARIA

2015eko apirilaren 22a, asteazkena

**II. ERANSKINA  
ITUNTZEKO GELAK**

Ikasturtea: 2015-2016.

Irakaskuntzak: Batxilergoa

Kod.: \_\_\_\_\_ Ikastetxea: \_\_\_\_\_ Udalerria: \_\_\_\_\_

BATXILERGOA	A		D	
	IKASLEAK	GELAK	IKASLEAK	GELAK
1. KURTSOA				
2. KURTSOA				
GUZTIRA				

\_\_\_\_\_, 2015eko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_a  
TITULARRA/ORDEZKARIA

(\* Diruz lagunduko diren gelak zehaztuko dira kurtsorako ikasle kopuru osoa kontuan hartuz eta modalitateak kontuan hartu gabe.

2015eko apirilaren 22a, asteazkena

**II. ERANSKINA**  
**ITUNTZEKO GELAK****Ikasturtea:** 2015-2016.**Irakaskuntzak:** Lanbide Heziketako Erdi-Mailako Heziketa Zikloak**Kod.:** \_\_\_\_\_ **Ikastetxea:** \_\_\_\_\_ **Udalerrria:** \_\_\_\_\_

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK		TXANDA	KURTSOA	HIZKUNTZA-EREDUA	IKASLEAK	GELAK
KODEA	ZIKLOAREN IZENA					

\_\_\_\_\_, 2015eko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_ a  
TITULARRA/ORDEZKARIA



2015eko apirilaren 22a, asteazkena

**II. ERANSKINA  
ITUNTZEKO GELAK**

Ikasturtea: 2015-2016.

Irakaskuntzak: Lanbide Heziketako Goi Mailako Heziketa Zikloak.

Kod.: \_\_\_\_\_ Ikastetxea: \_\_\_\_\_ Udalerria: \_\_\_\_\_

GOII-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK		TXANDA	KURTSOA	HIZKUNTZA-EREDUA	IKASLEAK	GELAK
KODEA	ZIKLOAREN IZENA					

\_\_\_\_\_, 2015eko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_a  
TITULARRA/ORDEZKARIA

2015eko apirilaren 22a, asteazkena

**II. ERANSKINA  
ITUNTZEKO GELAK****Ikasturtea:** 2015-2016.**Irakaskuntzak:** Zereginen Ikaskuntza.**Kod.:** \_\_\_\_\_ **Ikastetxea:** \_\_\_\_\_ **Udalerria:** \_\_\_\_\_

<b>MAILA</b>	<b>HIZKUNTZA- EREDUA</b>	<b>IKASLEAK</b>	<b>GELAK</b>
ZEREGINEN IKASKUNTZA			

\_\_\_\_\_, 2015eko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_a  
TITULARRA/ORDEZKARIA